

ORERETA IKASTOLA KOOP. E.-REN ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN ADIERAZPENA UDALARI

Orereta-Erreterian, 2025eko maiatzaren 7an



Zamalbide auzoa, 14
20100 Orereta-Erreteria
943 52 03 97
orereta@ikastola.eus
www.oreretaikastola.eus

KOKAPENA/TESTUINGURUA

Udalak Ikastolari aitortzen dio, legea eskuan, guraso elkarreentzako dirulaguntza eskatzeko eskubidea izan baduela. Gehitzen du Udalak ezin diola ukatu Ikastolari dirulaguntza hori eskatzea. Aitzitik, argudiatzen du beste hezkuntza-zentroek diru ekarpen txikiagoa jasoko dutela. Esaten dio Ikastolari, dirulaguntza horri uko egin ezean, 90. hamarkadatik duen dirulaguntza izenduna gal dezakeela.

Udalak ikastetxeei egiten dien diru ekarpen osotik (2,5 milioi €), Ikastolari uko egitea eskatzen zaion zatia 5.000 € ingurukoa litzateke.

Bestalde, Udalak egoera honek beste hezkuntza-zentroekin bizikidetza arazoak sor ditzakeela aipatzen du. Orereta Ikastolak ez du jasotzen administraziopeko eskola publikoek jasotzen duten finantziazioaren parekorik (ez Hezkuntza Saisetrik, ez tokiko administrazioetik). Bestalde, Oarsoaldeko udalek Ikastolekiko duten jarrera ez da bera udalerrri guztietan eta Orereta-Errenteriako Udalak matrikulazio-garaian hartzen duen jarrera ez da Euskal Herrian beste inon ematen. Orereta Ikastolak uste du aipatutako horiek guztiek sortzen dituztela bizikidetza-arazoak Euskal Herrian eta, bereziki, gure herrian.

IKASTOLAREN HAUSNARKETA

UDALAK EGINDAKO ESKAERA JAKINARI DAGOKIONEZ

Guraso elkarreentzako dirulaguntzari uko egiteko Udalaren eskaera guztiz arrazoirik gabea eta bidegabea dela iruditzen zaio Orereta Ikastolari, baina, edonola ere, **Ikastolak erabaki du ez duela Udalak markatu nahi duen joko-zelaian jokatu nahi, ez dela hori oinarrian dagoen aferara. Ikastolak argi du zer den, zer ekarpen egin diezaiokeen herriari eta zer eskatzen dion Udalari; eta horretaz hitz egin nahi du Udalarekin.**

IKASTOLAK EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA PROPIOAZ DUEN IKUSPEGIARI DAGOKIONEZ

Ikastolak aipatu nahi du hezkuntza arloko inor gutxi ase duen EAEko Hezkuntza Lege berriaren ibilbide eta eboluzioaren zain egon gabe, Orereta Ikastolak/hezkuntza eragileok tokian tokitik lanean jarraitu behar dutela, batetik, gizarteari ekarpena egiten jarraitzeko saiakeran eta, bestetik, bereziki EAEn bizi dugun nahi baino egoera nahasiagoa gainditzeko ahaleginean. Bide horretan, ezinbestekotzat jotzen du pauso kualitatiboak ematea euskal hezkuntza sistema propiorako trantsizio-bidean. Orube berria jarri behar da bakoitzaren onena jasoz, eta horretarako, esan bezala, pausoak eman behar dira bakoitzak bere lekutik, indarretik eta borondatetik.

Arnaldo Otegi (EH Bildu) eta Garbiñe Aranburuk (LAB) 2022ko azaroaren 29an elkarrekin egindako prentsurrekoan esan bezala: *"Gure ustez, orube berri bat jarri behar da,*

hezkuntza tradizio ezberdinen, bai ikastolen eta bai eskola publikoaren onena jasoz: Konfluentzia da bidea, sare publiko, bakar, burujabe eta deszentralizatuan antolatuko den hezkuntza sistema propioa eraikitzen hastea. Aitortza zor zaio eskola publikoaren komunitateari, inbertsio ezaren ondoriozko baldintza kaskarretan herrigintzan egindako lanagatik, euskara zabaltzeko egindako ahaleginagatik eta klase eta jatorriagatiko segregazioa, zeina gizarte gisa dugun arazo handietakoa den, eztabaida publikoaren erdigunean jartzeagatik.

Aitortza zor zaie ikastolei ere kultur transmisioan eta euskararen irakaskuntzan administrazio publikoa egiteko gai izan ez denari eutsi diotelako. Ikastolen sistema gai izan da nazio ikuspegia bere hezkuntza jardueran bermatzeko. Ikastolen antolaketa eredu komunitarioa ere aintzat hartzekoa da”, baita berrikuntza pedagogikoan eta materialgintzan egindakoa eta egiten dena ere.

Orereta Ikastolaren irudirako, momentua da euskal hezkuntza sistema propiorako bidean titulartasun partekatuak esperimentatzeko, tokikotasunean oinarrituz eta udalen parte hartzearen bidez.

Finean, pausoak emateko garaia dela deritzo Orereta Ikastolak, eztabaida gune eraikitzaileak eta adostasunerako guneak sortzekoa, eta Ikastola prest dago horretarako.

ESANAK ESANDA, IKASTOLAREN ESKAERA

IKASTOLA IRABAZI ASMORIK GABEKO HERRI ONURAKO ERAKUNDEA DA

- Irabazi asmorik gabeko erakundea da Ikastola, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunak aitortzen duen gisa.
- Ikastola erakunde publikoa da, Eusko Jaurlaritzak onura publikoko erakunde gisa aitortua duelako, eta hori Udalari hala dagokion egiaztagiria aurkeztuz adierazi zaio.
- Herri onurako erakundea da Ikastola. Azkenduko balitz, bere ondasunak administrazio publikoarenak izango lirateke; herriarenak, publikoak.
- Kooperatiba da Ikastola, herrikide guraso eta langileek osatzen dutena.
- Herriak sortu zuen XX. mendeko 60. hamarkadan. Ordutik hona herriari zerbitzua eman dio eta ematen jarraitzen du; eta hainbat ekarpen kultural eta sozial ere egiten dizkio.
- Herriko jarduera eta dinamiketan erabat inplikaturako erakundea da Ikastola: udalerrian hainbat jarduera bultzatzen ditu, baita beste hainbatetan parte hartu ere.
- Elkartasunez jokatzeko du Ikastolak, eta horren adibide dira:
 - Ikastolena Euskal Herriko sare bat izanik, urtero 900.000 euroko ekarpena egiten zaio herriari, euskal kultura eta ikerketa sustatzeko Euskal Herrian barrenako behar handieneko tokietan.
 - Langile soberakinak Ikastola sarean birkokatzen dira.

HORREGATIK GUZTIAGATIK, IKASTOLAK ESKATZEN DU

Orain arte esandako guztiagatik eta beste hainbat arrazoiengatik, Ikastolak bere izaera publikoa irmoki aldarrikatzen du eta errekonozimenduz eta aitortenez

administraziopeko ikastetxe publikoekin parekatua izatea eskatzen du. Herritarren eskola publikoa da Ikastola, eta hori argi eta garbi adierazi nahi da.

Hori dela eta, Ikastolak Udalari galdegiten dio ea Udalak ere Ikastola erakunde publiko gisa aitortzen duen. Udalari eskaera horri argi erantzuteko eskatzen dio Ikastolak, baiezkoa ala ezezkoa emateko.

Erantzuna jasotzean, Ikastola prest dago Udalak uko egitea eskatzen dion guraso elkarteentzako dirulaguntza-eskaerari muzin egiteko.

Erantzuna dena delakoa ere, Ikastolak uste du bere komunitateari (ikaslegoa, familiak, bazkideak eta langileak) izaera publikoaren aitortza eskaeraren eta Udalaren erantzunaren berri ematea dagokiola, Udalak hezkuntzan dituen dirulaguntza lerroen eta horien banaketaren azalpena emanez. Gardentasun eta zintzotasun ariketa dela deritzo Ikastolak.

Erantzuna baiezkoa bada, Ikastolak automatikoki ulertuko du administraziopeko ikastetxe publikoen eskubide berberak izango dituela. Beraz:

1. Baliabide ekonomiko berberetarako aukera izan behar duela.
2. Hezkuntza-erakunde eta -zerbitzu publikoaren errekonozimendua izango duela, eta beraz, trataera bera izango duela hala dagokionean (matrikulazio-garaian...)

Betebeharrek ere parekideak behar lukete izan:

1. Ikastolak hala nahi duen familia oro onartuko du berean, dena delakoa ere familia eta ikasle horien sexua, hizkuntza, erlijioa edota egoera ekonomiko eta soziala.
2. Ikuspegi eta kudeaketa ekonomikotik, gardentasun eta zintzotasun osoa bermatuko ditu.
3. Hizketarako eta adostasunerako erabat irekita eta prest izango da beti Ikastola.
4. Helburu sozialak eta hezkuntzakoak bakar-bakarrik izango ditu Ikastolaren jardunak.
5. Administraziopeko eskola publikoei eskatzen zaizkien betebeharrak betetzeko erabateko prestutasuna izango du Ikastolak.

Erantzuna ezezkoa bada, dirulaguntza-eskabide guztietan bere burua aurkezteko aukera ez du baztertzen Ikastolak.